

LASARTE-ORIAKO GAZTEAK EUSKARAZ

D eredua eta gurasoak erabilera gorakadaren gakoak

1992an, Lasarte-Oriako (Gipuzkoa) gazteen %23k egiten zuten lagun euskaldunekin euskaraz sarri; 2012an %52k. Euskara gaitasunak eta erabilerak gora egin dute azken hogeitun urteotan. Gurasoen eragina faktore garrantzitsuenetarikoa da.

| SAIOA LABAKA |



DANI BLANCO

Gaur egun Lasarte-Oriako hamar gaztetatik zazpi kuadrillako lagun guztiak euskaldunak ditu; 1992an %16,4k.

LASARTE-ORIA UDALERRIKO gazteen hizkuntza-portaeraren 20 urteko bilakaera aztertu du Pello Jauregi Etxaniz EHUko irakasleak *Euskara eta Gazteak Lasarte Orián III. 20 urteko bilakaera* liburuan. Hiru ikerketalari datuak bildu ditu. 1992. urtean egin zen Lasarte-Orian lehendabiziko ikerketa Joxe Mari Iraola Aranzadi soziologoaren eskutik. Handik hamar urtera, 2002an, egin zen bigarren ikerketa eta Pello Jauregi izan

zen horren arduraduna, baita 2012an egindako azken ikerketarena ere. Udalerriko 13 eta 24 urte bitarteko gazteen euskararen erabilera zein den aztertu da ikerketa guztietan, metodologia bera erabiliz. Azken hogeitun urtetan gauzak zenbat aldatu diren neurtzeaz gain, nola eta zergatik gertatu diren azaltzen du liburuan Jauregik.

Ikerketaren datu orokorren arabera, Lasarte-Oriako euskalduntze-

prozesuak aurrera egin du nabarmen azken hamar urte hauetan, eta are gehiago hogeitun urteko tartean. Hizkuntza-adierazle nagusiak aldatu egin dira: euskaraz hitz egiteko gaitasuna, euskararen erabilera eta euskararekiko jarrera. 1992an, Lasarte-Orian gazteen %43 zen euskaraz nahiko ongi edo oso ongi hitz egiteko gai. 2012an, %86. Lagun euskaldunekin euskaraz beti edo gaztelaniaz baino gehiago gaz-

Euskara eta gazteak: 20 urteko bilakaera

ESKOLAKO HIZKUNTZA EREDUA (LEHEN HEZKUNTZA)

	1992	2002	2012
D eredia	% 16.4	% 44.3	% 79.0
B eredia	% 3.6	% 35.9	% 14.2
A eredia	% 80.0	% 19.2	% 4.3
Besterik	% 0.0	% 0.6	% 2.5

EUSKARAZ HITZ EGITEKO GAITASUNA

	1992	2002	2012
Oso ongi	% 29.7	% 32.9	% 53.7
Nahiko ongi	% 13.3	% 30.5	% 32.1
Zertxobait	% 28.2	% 25.1	% 11.1
Hitz batzuk	% 23.1	% 9.6	% 1.9
Batere ez	% 5.6	% 1.8	% 1.2

HELDUEKIN BETI EUSKARAZ

	1992	2002	2012
Amarekin	% 10.8	% 15.6	% 30.2
Aitarekin	% 10.8	% 12.6	% 28.4
Irakasleekin	?	% 37.1	% 55.6
Begiraleekin (kirolean)	?	% 17.1	% 34.3
Begiraleekin (aisian)	?	% 29.5	% 44.0

KIDEEKIN BETI EUSKARAZ

	1992	2002	2012
Anai-arrebekin	% 9.7	% 16.2	% 31.5
Lagun euskaldunekin	% 12.7	% 20.4	% 38.3
Gelako ikaskideekin	?	% 13.8	% 22.8
Beste geletako ikasleekin	?	% 11.4	% 21.6

HIZKUNTZAREN ARABERAKO FAMILIA MOTAK

	2002	2012
Guraso euskaldunak	% 17.4	% 33.4
Ama besterik ez euskalduna	% 9.0	% 13.0
Aita besterik ez euskalduna	% 7.2	% 8.6
Guraso erdaldunak	% 65.3	% 43.2
Bestelakoak	% 1.1	% 1.8

EUSKAL HERRIAN MUNDU GUZTIAK EUSKARAZ HITZ EGIN BEHARKO LUKE

	1992	2002	2012
Gutziz ados	% 26.7	% 15.6	% 21.0
Ados	% 30.8	% 22.8	% 35.2
Zalantza	% 20.5	% 31.1	% 30.9
Kontra	% 12.3	% 22.2	% 11.1
Gutziz kontra	% 9.7	% 7.8	% 1.2
EE	% 0.0	% 0.6	% 0.6

Iturria: Euskara eta gazteak Lasarte-Orian III. 20 urteko bilakaera (Pello Jauregi Etxaniz)

teen %23k egiten zuten 1992an, %52k, berriz, 2012an. Egun, Lasarte-Oriako gazteen %94,4k ulertzen dute euskara, oso ongi edo nahiko ongi; denboran atzera %60k.

Aldeko testuingurua

Bilakaera horren atzean zein faktore egon daitezkeen galdetu diogu Jauregiri. “Gazteen jokaerak aztertzeaz gain, euren sozializazio testuinguruak nola aldatu diren aintzat hartu beharra dago: familia, eskola, lagunartea eta aisialdia. Lau eremu horietan egon da euskararen alderako jauzi nabarmena. Azken ikerketan aztertutako gazteen gurasoen kasuan, aldaketa esanguratsua gertatu da; hogeituro urteko bilakaeran, lehen aldiz, Gipuzkoan bertan jaiotako gurasoak nagusitzen dira. Hortaz, hemengo erreferentzia kultural eta hizkuntzazkoak jaso dituzte.

Gazteek euskararen erabilera eta ezagutzan aurrera egin dutela ulertzeko, faktore garrantzitsuenetako bat da hori. Euskararen erabilera nabarmen egin du gora etxeetan, gurasoen eta seme-alaben arteko harremanetan. Guraso belaunaldi horrek bultzada handia eman dio euskararen familia bidezko transmisioari”, esan digu Jauregik. Egun,

Hogeituro urteko bilakaeran, lehen aldiz, Gipuzkoan jaiotako gurasoak nagusitzen dira. Hortaz, hemengo erreferentzia kultural eta hizkuntzazkoak jaso dituzte gazteek

%67,9 da Gipuzkoan bertan jaiotako aiten kopurua eta %75,3 amen kopurua.

Eskolari dagokionez, D eredia orokortua dago Lasarte-Orian; azken hogeituro urtetan euskarazko irakaskuntzaren gorakadak ez du etenik izan. Ikerketaren arabera, aztertutako gazte gehienek, hamarretik zortzik, euskaraz egin dituzte Lehen Hezkuntzako ikasketak. Orain hogeituro urte justu kontrakoa zen; gazteen hamarretik zortzik A eredian ikasi zuten. D eredia egonkortu da eta %30 da euskararen erabilera informala. Argi dago, hortaz, egoera irauli egin dela.

Lagunartean begira, gaur egun, herriko kuadrilla gehienak euskaldunak edo euskaldunetz osatuta daudela jakinarazi digu Jauregik; hamar gaztetatik zazpi dituzte kuadrillako lagun guztiak euskaldunak.

1992. urtean gazteen %16,4k zituen kuadrillako kide guztiak euskaldunak, egun %69,1ek. Aisialdian eta eskolaz kanpoko jardueretan ere euskararen presentzia areagotu egin dela diote datuek, nahiz eta oraindik ere euskararen presentzia txikia izan. Pello Jauregi: “Testuinguru honetan, ulertzekoa da aldeko baldintzak egon direla gazteek bai gaitasunean bai erabileran aurrerapau-soak emateko”.

Etxea zutari

Behin Lasarte-Oriako hizkuntza-egoeraren argazki orokorra aterata, gazteen hizkuntza-portaeren inguruko gako nagusien berri eman digu Pello Jauregik. Gazteen artean euskararen erabilera informala areagotzeko familiak duen garrantzi handia azpimarratu digu, lehenik: “Familiak erabileraren joera naturala bultzatzeko zeregin ikaragarria du eskuartean; familiak gazteek kalean erakutsiko duten hizkuntza-erabileran eragin zuzena du. Orain arte eremu honetan lan handia egin bada ere, aurrerantzean indar gehiago jarri beharko da”. Biharko familiak egungo gazteek osatuko dituztenez, erronka gazteen eskuetan ere badagoela gaineratu digu. Esaterako, bikoteak osatzen diren garaietan finkatzen da hizkuntza-harremana, geroko familiaren hizkuntza naturala izango dena.

Familia eta eskola osagarri

Aurrez esan bezala, D eredia da nagusi Lasarte-Orian. Ikerketako datuen arabera, atzean familia euskalduna dagoen kasuetan, hamarretik bederatzik oso ongi hitz egiten dute euskaraz, eta hamarretik seik euskaraz hitz egiteko joera izaten dute. Bestalde, D eredian ikasi bai baina familia ez-euskalduna izanda, hamarretik hiruk lortzen du euskaraz ondo hitz egitea eta hamarretik bik erabiltzen dute. “Eskolak eman

du eman beharrekoa, dagoeneko ezin du gehiago egin. Eskolak bere onena ematen du atzean familia euskalduna baldin badago. Euskaldunak sortzeko eta euskararen erabilera bultzatzeko ezinbesteko oinarria da eskola, baina benetan orain aktibatu behar dena familia da. Hortik etorriko da eremu informalean euskararen erabilera areagotzea”. Zentzu horretan, euskaraz ondo eta nahiko ondo hitz egiten duten gazteen artean hizkuntza joera ezberdinak antzeman dituztela jakinarazi digu Jauregik. Euskaraz hitz egiteko erabateko erosotasuna

“Euskaldunak sortzeko eta euskararen erabilera bultzatzeko ezinbesteko oinarria da eskola, baina benetan orain aktibatu behar dena familia da”

Pello Jauregi

lortzen duten gazteek, euskalduntze prozesua amaieraraino ematen dutenek, euskararen aldeko bidea hautatzen dute. Gainontzekoek, ordea, gaztelaniaren bidea. “Nahiz eta gaitasun aldetik oso harte txikia egon, bide ezberdinak aukeratzeko dituzte gazteek. Euskaraz nahiko ondo hitz egiteko gai direnek prozesua borobiltzeko beste zerbait behar dute, ingurune naturaletik etor daitekeena; familia, lagunartea... Prozesua ez bada guztiz burutzen, atzera egiteko arriskua dago. Datozen urteei begira, kon-tuan hartu beharrekoa da hori”.

Euskalduntze prozesua zabaltzeko aukerak

Hogei urteren bueltan, Lasarte-Oriako gazteen hizkuntza-portaera-

ren inguruko datu soziolinguistiko onenak lortu dira. Ikerketan ondorioztatu da hamar gaztetatik bederatzik oso ongi edo nahiko ongi ulertzen dutela euskara. Pello Jauregiren ustez, herriko gazteek euskararako gaitasuna eskuratua dutela ondorioztatuta, erabilpena bultzatzearen aldeko lana egin behar da: “Edonork herriko gazteekin euskaraz hitz egin nahi izanez gero, ez luke arazorik izango. Ulermenak euskaraz komunikatzeko bidea desblokeatu egin du; ez dago oztopo teknikorik behintzat. Baldintza horiek lehenengo aldiz ditugu Lasarte-Orian. Elebidun pasiboen kopurua unibertsalizatzea lortu da. Euskaraz hitz egiteko gogoia da orain aktibatu behar dena”.

Horren harira, harreman asimetrikoen beharren inguruko gogoia eta plazaratzen du Pello Jauregik liburuan. Hizkuntza-harreman asimetrikoak ematen dira kide batek hizkuntza bat erabiltzen duenean (euskara, adibidez) eta besteak beste hizkuntza batez erantzuten dionean (gaztelaniaz); bien arteko komunikazioa ez da eteten, elkar ulertzen dutelako. Hor dago Kataluniako kasua. Jauregiren ustez, Lasarte-Orian, egun, gazte eremuan baldintza objektiboak daude harreman asimetrikoen estrategia era zabal eta sistematikokoan erabiltzeko. Lan pedagogiko bat egin beharko litza-teke lehenik bere iritziz, egungo diskurtsoa aldatuz. Gazteen artean jokaera horrek onarpena izango balu, gizarte mailako antolaketa eskatuko luke egitasmoak; dimentsio kolektiboa, mugimendu sozial baten bidez aurrera eraman litekeena. Planteamendu berria da.

Hemendik hamar urtera egingo dute ikerketa bera Lasarte-Orian. Interesgarria izango da datu berriek irudikatuko duten argazkia aztertzea. ■



Babeslea: Bizkaiko Foru Aldundia

